



DATUEN BABESA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN IKASTARORAKO DEIALDIA

Datak:

AUTOMATRIKULA: Argitaratu denetik **azaroaren 05era (08:00ak)**.

Hurrengo estekaren bitartez egingo da:[online izen-ematea](#)

modu honen bidez aurkeztutako eskabideak bakarrik hartuko dira kontuan.

IKASTAROA: **Azaroaren 15etik (14:00ak) abenduaren 11ra (08:00ak)**, online

AZTERKETA: **Abenduaren 13tik (14:00) abenduaren 19ra (08:00)**, online.

BAJEN JAKINARAZPENAK:

Matrikulatuta dauden eta ikastaroa egin ezin duten ikasleek horren berri eman behar dute **azaroaren 13a** baino lehen, matrikula ezeztatu ahal izateko. Ikastaroa data horren ondoren utziz gero, urtebeteko epean egiten den edozein prestakuntza-eskaera ezeztatu daiteke.

Iraupena: 20 ordu.

Hartzaileak:

Justiziako karrerako eta bitarteko funtzionarioak, onartutakoen eta baztertutakoen behin behineko zerrenda argitaratzen duen Ebazpenaren datan aktiboan daudenak. 200 plaza.

Lehentasuna izango dute, azken deialdian ezarri zen hautaketa-irizpidearen arabera, kanpoan geratu ziren pertsonak, baldin eta berriro izena ematen badute eta ezarritako eskakizunak betetzen badituzte.

Izen-emateak eskaintako plazak gaintzen baditu, 200 laguneko taldeak osatuko dira, abizenaren ordena alfabetikoari jarraituz, U letratik abiatuta. Ikastaroaren azken edizioan kanpoan geratu zirenek lehentasuna izango dute.

Langilearen atarian, ikastaroa hasi baino 15 egun balioudun lehenago, hurrengo talderako ikastaroaren datak argitaratuko dira. Informazioa argitaratzen den egunean, partaideek lanean egon beharko dute administrazio honetan.

Ez da lan-poltsetako langileentzako baliagarria.

Egitaraua:

- 1.gaia: Oinarrizko kontzeptuak
- 2.gaia: Datuen babesa Justiziako Administrazioan

- 3.gai: Datu pertsonalen erabileraren alderdi praktikoa.
- Ohiko galderak

Ziurtagiria:

Ikastaroa bukatuta Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak “Nire karpeta” eskegiko du.